



Kultura Idatziaren Iraunkortasunaren Hirugarren Behatokia

2025-2026
CEDROk sustatutako ekimena

www.observatorioculturaescrita.org

2025eko urria

AURKIBIDEA

01

Lan editorialak
«merezimenduzko»
ondasuna

02

Gizarteak jardunbide
desegokiak arbuizatzea

03

Erakundeen
eredugarritasuna eta
egile-eskubideak

04

Kultura idatzia arriskuan
AAren ondorioz

05

Irtenbideak



Sarrera

2023an abian jarri zenetik, Kultura Idatziaren Iraunkortasunaren Behatokia, CEDROk sustatua, funtsezko tresna bihurtu da ekosistema editorialak jabetza intelektualaren eskubideen inguruan dituen erronka nagusiak aztertzeko, egile-eskubideen babespean dauden eduki idatziak berrerabiltzeari dagokionez. Era berean, erabiltzaileek informazio zehatza eta eguneratua dute, eduki editorialak modu arduratsu eta gardenean berrerabiltzeko lanean aurrera egiteko.

Behatokiaren lehenengo eta bigarren azterketetan, kultura idatziaren iraunkortasuna arriskuan jartzen duten bi egoera identifikatu ziren, elkarri lotuak biak: alde batetik, **lehia-desabantaila argia diagnostikatu zen Espainiako sektore editorialean, Europako argitaletxeen egoerarekin alderatuta**, ez erakunde pribatuen aldetik ez administrazio publikoen aldetik edukiak berrerabiltzeagatik ordainsaririk jaso ez izanaren ondorioz; eta, bestetik, pirateriaren hazkunde esponontzialaren arrazoiak detektatu ziren. Azken fenomeno horrek bi eragile nagusi ditu: digitalizazioak sortzen duen disonantzia kognitiboa, batetik, eta sektore publikoak neurririk ez hartzea herritarren artean egile-eskubideak errespetatuko dituen kultura sustatzeko, bestetik. Bi faktore horiek arriskuan jartzen dituzte sorkuntza eta liburugintza.

Kultura idatziak dituen arazoak gorabehera, agerian geratu **zen gizarteak modu positiboan baloratzen dituela, garapen pertsonalari eta kolektiboari begira, liburu, aldizkari eta egunkarietan zabaldutako edukiak, bai eta dagozkien jabetza intelektualeko eskubideak ere**. Eta, disonantzia kognitiboaren kontzeptutik abiatuta, **teknologiak erabiltzen dituen eta kontsumitzaileak eduki editorialen pirateriara bideratzen dituzten justifikazioak eta alborapenak aztertu ziren**.

Bi txosten horiek **irtenbide bideragarriak** planteatzeko balio izan zuten: hala nola, **administrazio publikoek, egile-eskubideen lizentzien bidez, edukiak berrerabiltzeagatik ordainsaria ematera bideratutako politikak gidatzea, hezkuntzaren arloan jabetza intelektualari buruzko prestakuntza** sustatzeko neurriak abiaraztea eta herritarrei zuzendutako **kontzientziazio-kanpainak** egitea. Era berean, lehen aldiz ebaluatu zen neurri horiek abian jartzeak gizartearen aldetik izan zezakeen babesa, eta emaitzak aldekoak izan ziren.

Hirugarren ikerketa honen emaitzak ondorioztatzen du, laburpen gisa, **herritarrek ondasun komun bat –merezimenduzko ondasun bat– ikusten dutela kultura idatzian eta egile-eskubideetan; plataforma teknologikoak, lehenik, eta administrazio publikoak, bigarrenik, babestutako eduki editorialen baimenik gabeko erabilera normalizatzen laguntzen ari direla (pirateriaren demokratizazioa); eta, azkenik, egileen eta editoreen jabetza intelektualak modu eraginkorrean babesteko, Gobernuako arlo guztien —ez soilik Kulturaren— erantzukizun partekatua eta erregulazio eraginkorra behar dela**.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da legediak merkatu argi eta garden bat eratzea, jabetza intelektualak zer den eta nola berrerabiltzen den definituko duena. Garrantzitsua da, halaber, merkatu horrek sortzen duen informazioa enpresa teknologiko gutxi batzuen esku ez geratzea. Arau berberak aplikatu behar dira konpainia horiek egile-eskubideak negoziatzen dituztenean, obra babestuak masiboki erabiltzen baitituzte.

AAk gizartean, oro har, eta kultur sektorean, bereziki, **duen eraginari dagokionez**, adostasun handia dago: **arriskua dakar esparru guztietan**.

Qbo Investigación y Estrategia enpresak egindako azterketak teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak uztartu zituen. Fase kualitatiboan, lau foku-talde antolatu ziren Madrilén, profil desberdinetakoak, argitalpen (ofizial eta ez-ofizial) motaren kontsumoa eta adina (25-45 eta 45-65 urte) kontuan hartuta, genero-orekarekin batera. Ondoren, online inkesta bat egin zitzaion 16 urtetik gorako 1.000 pertsonari, Espainiako biztanleriaren erakusgarri, $\pm$ % 3,1eko errore-marjinarekin eta % 95,5eko konfiantza-mailarekin. Galdeketak 10 minutu iraun zuen, batez beste.

Txosten berean AAk nolako sarrera izan duen eta nola hauteman den aztertzen duen azterketa bat sartu da, Qbo-k 2025eko uztailean 18 urtetik gorako 1000 lagunekoa lagin bati online egindako galdeketan oinarri hartuta. Lagin hori biztanleria orokorraren erakusgarri da, sexuari, adinari eta Autonomia Erkidegoari dagokionez.

Lan editorialak «merezimenduzko» ondasuna dira



Kulturaren alde lan egitea jardunbide sozial egokia da

Ikerketaren arabera, herritarren ustean kultura idatzia (liburuak, egunkariak, aldizkariak eta partiturak) babestea ezagutza zaintzea da, kultur ondarea gordetzea eta pentsamendu kritikoa sustatzea, bai eta prestigio sozialari atea irekitzen dion giltza edukitzea ere.

Babes horrek, gainera, egile-eskubideen babesa ere badakar berekin. Hain zuzen ere, **herritarren % 83,7aren ustez, egileen eta editoreen jabetza intelektualaren eskubideak errespetatzeak kanpo-eragin positiboak ditu gizartearentzat**, eta, beraz, jardunbide sozial egokia da, herritar guztientzat erabilgarria.

% 83,7

% 83,7aren ustez, egileen eta editoreen jabetza intelektualaren eskubideak errespetatzeak kanpo-eragin positiboak ditu gizartearentzat.

Pertzepzio horrek indartu egiten du kultura idatzia eta kultura horrek sortzen dituen eskubideak babestea, legezkoa izateaz gain, norbanakoari mesede egiten dion eta kolektibitatea indartzen duen jarduna ere badelako ideia.

Horregatik, ikuspegi ekonomiko eta sozial batetik begiratuta, lan editorialak **merezimenduzko ondasuntzat** har daitezke, hau da, onura kolektiboak sortzen dituen ondasuntzat, eta horren babesa eta errespetua **aktiboki sustatu beharko lituzke Estatuak**. Balio horrek, eskubide hori babestea ez ezik, administrazio publikoek eta sektore pribatuak (plataforma teknologikoek barne) hura sustatzea ere justifikatzen du.


Hala ere, merezimenduzko ondasun hori multinazional teknologiko batzuen interes enpresarialek bultzatutako erabileren (**erabilera meritu-gabeak** dei genitzake) mehatxupean dago. Adibidez, enpresa horiek, kasu askotan, ez dute jakinarazten nola erabiltzen dituzten eduki editorialak beren negozio-eredua garatzeko, eta beren alde erabiltzen dute beren jardunaren ingurunea, gutxi araututa dagoelako. Horren ondorioz, **politika publiko batzuek, azkenean, argitalpen-lanen balio marjinalaren galera bultzatu dute zeharka**, ordezeko edukien commodity delakoa sustatuz, hala nola liburuen eta prentsa-argitalpenen kopia ilegalak.

Dinamika hori **ongizatearen teoria klasikoaren printzipioen aurkakoa da**, egileak eta editoreak kaltetzeaz gain, **gizarte osoarentzat ere kaltegarria** den neurrian. Era berean, lan editorialak babestu eta indartu beharreko ondasun gisa aitortzeko ekimena ahultzen du.


Testuinguru horretan, **gizartearen zati handi batek (% 67,6) uste du ez dagoela nahikoa informazio egile-eskubideei buruz**. Ezagutzarik eza hori huts teorikoa da merezimenduzko ondasunen esparruan, eragotzi egiten baitu gizarteak eskubide horiek behar bezala aintzatestea eta baloratzea, eta horrek eragin negatiboa du guztion ongizatean. Egoera horrek banaketa-sektoreari (enpresa teknologikoak) bakarrik egiten dio mesede, eta ez ekoizpenari (egileak eta editorialak).

Aldaketa teknologikoen eta sozialen aurrean, **gizartearen % 88,7k uste du inoiz baino beharrezkoagoa dela herritarrei hobeto azaltzea zein diren egile-eskubideen etekinen kanpo-eraginak, baita teknologiararen erabilera meritu-gabeek eragindako ondorio negatiboak zein diren ere**.

Egile-eskubideei buruz eskuragarri dagoen informazioari buruzko pertzepzioa




Ez dago Egile-eskubideei buruzko informazio nahikorik



Orain, inoiz baino gehiago, hobeto azaldu beharko litzaioke jendeari zer onura dakarten egile eskubideek

Informazio-lan hori zein erakundek zuzendu beharko lukeen galdetuta, erantzuna argia da: galdetegiari erantzun dioten % 51,9k ministerioak aipatu ditu. **Erantzukizuna Kultura eta Hezkuntza Ministerioarena ez ezik, Eraldaketa Digitalaren Ministerioarena, Industria Ministerioarena eta Justizia Ministerioarena ere badela uste dute. Herritarren ustez, erakunde horiek hartu beharko lukete beren gain egile-eskubideak** —eta horiek gizartean duten eragina— ezagutarazteko lana.


Nork gidatu beharko luke egile-eskubideei buruzko informazio-lana?



% 51,9

% 30,7

% 17,4



Hirugarren ikerketa honetan identifikatu ahal izan den bezala, gizartearentzat, oro har, digitalizazioa mehatxu bat da kultura idatziari dagokionez, eta eduki editorialen kontsumo-ohiturak eraldatzen ari dira.

Ondorioa. Herritarren arabera, egile-eskubideak demokrazia eta gizarte-garapena (merezimenduzko ondasuna) indartzen dituen ondasun kolektiboa dira. Hala ere, pertzepzio positibo horretaz gain, informazio falta dagoelako kezka ere hor dago, bereziki balio horiek mehatxatzen dituen transformazio digitalaren testuinguruan. Hori dela eta, lehentasunezkoztat jotzen da Kultura eta Hezkuntza Ministerioak, Eraldaketa Digitalaren Ministerioak, Industria Ministerioak eta Justizia Ministerioak egile-eskubideak ezagutarazteko, babesarazteko eta errespetarazteko informazio-estrategia bat gidatzea.

Gizarteak jardunbide desegokiak arbuiaztzea

2




Jasangarritasunari kalte egiten dioten jardunbideak

Egile-eskubiderik ez izateak, ikerketa honetan adierazi denez, ingurune pobre bat sortzen du berrikuntzari eta originaltasunari dagokionez, sortzaileentzat eta editoreentzat segurua ez dena eta plagioa eta imitazioa nagusi dituen. Hori guztia muga bat da gure gizartearen aurrerapen zientifiko, kultural eta ekonomikoarentzat.

Alde horretatik, **egile-eskubideak funtsezko zutabeak dira gizarte bidezko bat, sortzailea eta lan intelektuala errespetatuko duena bermatzeko**. Herritarrek adostasun-maila handia erakutsi dute adieraztean zer jotzen den jardunbide desagokitzat eduki editorialen erabileran; AAk eskubide horiek baimenik gabe erabiltzea da horietako bat.

Alborapenak eta Administrazioa



Jabetza intelektualaren arloko jardunbide desagoki horien erantzuleen artean, herritarrek, lehenik eta behin, enpresa teknologikoak aipatzen dituzte bultzatzaile nagusi gisa, eta, era berean, sektore publikoan ere ikusten dute jokabide horietako askoren jatorria. Beraz, **erakundeek egiten dutenaren eta gizarteak haiengandik espero duenaren arteko deskonexioa** sumatzen da jabetza intelektualari dagokionez.

Jardunbide desagokien jatorria



Ez dago loturarik erakundeek egiten dutenaren eta jabetza intelektualaren eremuan gizarteak haiengandik espero duenaren artean.

Alborapenak eta Herri Administrazioa

Behatoki honek jabetza intelektualaren arloko jardunbide desegokiak sustatzen dituzten alborapen kognitiboak edo lasterbide mentalak aztertzen jarraitu du. Izan ere, jardunbide desegoki horiek dira obra babestuen baimenik gabeko erabileren jatorria, hau da, eduki editorialen legez kanpoko kontsumoaren jatorria.

Alborapen horiek **erruaren pertzepzioa murrizten dute, arau-haustea arrazionalizatzen dute eta gizartean duten onarpena normalizatzen dute**. Horiek identifikatzeak lagundu egiten du ulertzen zergatik jarraitzen duen edukien legez kanpoko kontsumoak hain hedatuta egoten eta handitzen –kultura idatzia baloratzen dutela diotenen artean ere–.

Zein dira alborapenak eta zer jatorri dute?



Autoritate-alborapena

Hau da garrantzi handien duenetako bat. Pirateriaren eta baimendu gabeko gainerako erabileren aurkako mezu instituzional argirik ez egotea, baita ageriko zehapenik ez egotea ere, baimen inplizitu gisa ulertzen dira. Kondena publiko irmorik ez dagoenean, legez kontrako jokabidea toleragarria bihurtzeaz gain, onargarria ere badela ematen du.



Berehalako sariaren alborapena

Honek ere eragin erabakigarria du edukien inguruko legez kontrako jokabideetan. Eduki ilegalak berehala eta erraz eskuratu ahal izateak jokabide hori indartzen du, berehalako saria eskaintzen baitu eta hausnarketa etiko oro alboratzen.



Normaltasunaren eta kontsentsu faltsuaren alborapena

Legez kanpoko edukia kontsumitzen duten banakoen kopurua berez dena baino handiagoa dela uste izatera eramaten ditu pertsonak, eta horrek norbanakoaren erantzukizuna lausotzen du. «Mundu guztiak egiten du», «irakasleek ere egiten dute» eta gisako esapideak pertzepzio oker horren adibide zuzenak dira.



Kausa kanpoko eragileei egoztearen alborapena

Norbere portaeraren errua beste batzuei –batez ere argitaletxeei, egileei edo salneurri-politikei– egozteak dakar. Kontsumitzaileak konpentsazio-logika baten bidez zurretzen du bere burua («liburuak garestiak dira», «argitaletxeek asko irabazten dute»), eta logika horrek egintzaren legezkotasunik eza desitxuratzen du.



Ainguratze-alborapena

Garrantziko eragina du, legezko eduki baten prezioa legez kanpoko jarduerak eskaintzen duen doako sarbidearekin alderatzeko joera baitu. Hala, automatikoki errefusatzeko da ordainketa, produktuaren benetako balioa edozein dela ere. Konparazio desleial horrek legez kanpoko aukera bultzatzen du.



Auto-justifikazioaren alborapena

Honen bidez, legez kanpoko kontsumoa sortzaileentzat eurentzat onuragarria dela interpretatzen da, «horrela ikusgarritasuna irabazten dute», «gustatzen bazait, gero erosiko dut» eta gisako argudioak erabiliz. Arrazoitze modu horrek arau-haustea leuntzen du eta kontsumitzaile arduratsuaren irudia edukitzen laguntzen du.



Norberak betetzea profezia eta berrespenaren alborapena

Jokabide-eredu hau sendotzen dute: legez kanpoko edukiak zenbat eta gehiago bilatu eta eskuratu, orduan eta justifikazio eta froga gehiago aurkitzen dira portaera hori guztiz zabaldua eta sozialki onartuta dagoela sinesteko. Zigorgabetasunaren pertzepzio horrek pirateria indartzen du eta norberaren portaeraren etikotasuna zalantzan jartzeko aukera oro blokeatzen.



Eskuragarritasun kognitiboaren alborapena.

Edukitik bitartekora desbideratzen du arreta. Garrantzi handiagoa ematen zaio sarbide-teknologiari obraren balioari berari baino, eta horrek deshumanizatu egiten du kultura idatzia, eta produktu hutsal, baztergarri edo osagarri soil bihurtzen. Balio-desplazamendu hori bereziki kezkarria da, sortzaileen lanaren onarpen soziala kaltetzen baitu.

Erakundeek jardunbide desegokiak areago indartzen dituzte alborapen horiek guztiak. Askotan, Administrazioek eurek aktibatzen eta legitimatzen dituzte, pirateria ez ezik, eduki editorialen baimenik gabeko gainerako erabilerak ere justifikatzen dituzten alborapenak.

Hala, autoritate-alborapena indartu egiten da erakunde batek egile-eskubideak urratzen dituenean; adibidez, eduki editorialak berrerabiltzeko egile-eskubideen lizentziarik ez duenean. Eskubideak babestu behar dituenak ez baditu haiek aintzat hartzen, herritarra legitimatuta sentitzen da gauza bera egiteko. Era batean, ikastetxe publikoetan liburuak edo hezkuntza-materialak legez kanpo banatzea praktika arrunta dela hautemateak, zenbait hezkuntza-esparrutan gertatzen den bezala, elikatu egiten du normaltasunaren eta kontsentsu faltsuaren alborapena.

Kausa kanpoko eragileei egoztearen ondoriozko alborapena erakundeetara lerratzen da batzuetan: ministerioek ordaindu gabe erreproduzitzen badituzte eduki editorialak, herritarra ez da hain erantzule sentitzen. Gainera, norberak betetako profezia eta berrespen-alborapena sendotu egiten dira «egile-eskubideak inork ez dituela errespetatzen» —horretara behartuta daudenek ere ez— dioen ustea berresten denean.

Eta **erabilgarritasun kognitiboaren alborapena** anplifikatu egiten da politika publikoek hedapen teknologikoa (digitalizazioa edo AA, adibidez) lehenesten dutenean kanal horien bitartez zabaltzen diren kultura-edukien babesaren aurretik.

Jokabide-ekonomiaren ikuspegitik, arrazionaltasunetik aldentzen gaituzten alborapen psikologiko eta sozialek eragina izan dezakete herritarren erabakietan. Lasterbide horiek **azaltzen dute zergatik normalizatzen eta justifikatzen duten pertsona askok edukien legez kanpoko edo baimendu gabeko kontsumoa**, berehalako saria bilatzean, hautemandako arauetara jarraitzean edo erantzukizuna minimizatzean.

Logika hori ulertzeak erraztu egiten du liburu, aldizkari, egunkari eta partituren **kontsumo etikoagoa eta arduratsuagoa** sustatzen duten **estrategien diseinua**.

“Teknologia geldiaraztea eta kultura babestea legedi eraginkor baten bidez”

Txostenak agerian uzten du **garapen teknologikoa dela alborapenak eragiten dituen faktore nagusia —horixe bera gertatzen ari da AArekin ere—**, funtsean multinazional handien interes ekonomikoek bideratuta dagoelako eta ez interes sozialek edo kulturek. Praktika horren ondorioz, alborapenak —**arreta-alborapena**, adibidez— modu esponentzialan zabaltzen eta hazten ari dira.

Horrez gain, **erregulazio eraginkorrik ez izateak —% 87k uste du erregulazio gutxi dagoela— monopolioak** sendotzea eta zerga-ihesa, desinformazioa eta kultur lanen **erabilera desegokia** (ordainik gabekoa) areagotzea ahalbidetu ditu. Herritarrek, gainera, ikusten dute **administrazioek boterea eman dietela enpresa teknologikoei** eta «irizpiderik gabe, kontrolrik gabe eta kontzesioak eginez» moldatzen dituztela legeak; lau pertsonatik hiruk dute iritzia hori.

Ondorioz, zenbait kanpo-eragin negatibo sortzen dira.

Kulturaren arloa

Herritarren % 74,1ek baino gehiagok uste du jardunbide desegokia dela idazleen eta editoreen lanak aintzatespenik eta ordainsaririk gabe erabiltzea, arriskuan jartzen baitu argitalpenaren sektorearen iraunkortasuna.

Gizartearen arloa

Arrisku hauek identifikatu dira: pentsamendu kritikoa galtzea, informazioa manipulatzea, gizarte-kontrola eta desberdintasunak areagotzea. Ikerketaren arabera, gizartearen % 64k eskatzen du alderdi horiek premiaz arautzea.

Ospearen ikuspegia

Inkestari erantzun diotenen % 96k uste du administrazio publikoek jardunbide desegoki horiek egitea enpresa pribatuek egitea bezain larria edo are larriagoa dela, eta zalantzan jartzen du erakundearen eredugarritasuna.

Ondorioa. Gizarteak berrikuntzaren eta kulturaren aurkako mehatxutzat hartzen ditu autore-eskubideen inguruko jardunbide desegokiak —plagioa, ordaindu gabeko kopia, obrak baimenik gabe AA trebatzeko erabiltzea—. Erakundearen eredugarritasunik ezak eta teknologia handien eraginak, alborapen kognitiboak indartzen dituztenak, jardunbide horiek normalizatzen laguntzen dute. Ondorioz, eragin negatiboak sortzen dira kultura idatzian eta sektorearen iraunkortasunean, pentsamendu kritikoa ahultzen da eta arrisku sozialak areagotzen dira, hala nola manipulazio informatiboa eta berdintasunik eza; aldiz, administrazioen eredugarritasuna zalantzan jartzen da herritarren aurrean. Ezinbestekoa da, beraz, sektore publikoaren ekintza irmoa, bai eta erregulazio eraginkor bat ere, sortzaileak eta editoreak babeste aldera.

Erakundeen eredugarritasuna eta egile- eskubideak: herritarren eskakizuna




Egile-eskubideak babestearen arduradunak

Herritarren ustez, herri-administrazioek dute, eta batez ere administrazio zentralak, kultura idatzaren sektorearen egile-eskubideak babesteko erantzukizun nagusia, gaitasun legegilea eta betearazlea dutelako. Izan ere, eskubide horiek babestea gizarte osoa zaintzeko modua ere badela diote. Nobedade gisa, erantzukizun hori **Kultura Ministerioarena ez ezik, Hezkuntza Ministerioarena, Barne Ministerioarena eta Ogasun Ministerioarena ere** badela adierazi da.

Erantzun horretan, kulturaren inguruko gaien eta horien babesaren zeharkakotasuna adierazten da, gizarte osoarentzat onurak sortzen dituen ondasuna baita, merezimenduzko ondasun bat, alegia.

Gobernuko arlo desberdinek –zentrala, autonomikoa edo tokikoa– jabetza intelektualaren arloan duten **inplikazio partekatuak**, egile-eskubideei buruz informatzeko eta trebatzeko erantzukizunean ere islatzen denak, benetako «estatu auzi» gisa kokatzen ditu kulturaren eta jabetza intelektualaren inguruko gaiak.

Aldi berean, **kudeaketa-erakundeak** –CEDROk, esaterako, sektore editorialean– eta, neurri txikiagoan, **argitaletxeak** lan horretan duten zeregina aitortzen da.



Gehiengoaren ustez, **Administrazioek alde batera utzi dute egile-eskubideak babesteko erantzukizuna**. Herritarrek salatzen dute ez dagoela sentsibilizazio-kanpainarik, zehapenak ez direla behar bezala aplikatzen eta erakundeek ez dutela gidaritza hartzen hainbat arazoren aurrean, hala nola pirateria digitalaren aurrean eta eduki editorialak (liburuak, egunkariak, aldizkariak eta partiturak) berrerabiltzeko beharrezkoak diren egile-eskubideen lizentziarik gabeko obren erabileraren aurrean, hezkuntzaren, kulturaren eta administrazioaren esparruetan, eta orain baita adimen artifizial sortzailearen (AASren) garapenean ere. Era berean, uste dute erabakitzaile publikoen ekintza falta horrek gizarte desordenatu baten ideia indartzen laguntzen duela, noraezean dagoen eta atzeraka egiten ari den kultura bat duen gizarte batena alegia.

Egoera horrek ondorio garrantzitsuak ditu Administrazioak proiektatzen duen irudian. Herritarrek argi eta garbi bereizten dituzte egile-eskubideak babesten dituztenak –justiziari, seriotasunari eta kultura-konpromisoari lotuak– eta eskubide horiek alde batera uzten dituztenak –arduragabeak eta legezkotasunik ezarekin laxoak–. Izan ere, herritarren **% 88,7k egileen eta editoreen eskubideak behar bezala babestearekin lotzen du aurrerapen iraunkorra.**

Egile-eskubideak eta Administrazio Publikoak

% 69

Galdetegiari erantzun dioten % 69k uste dute Administrazio Publikoak direla jardunbide desegokien erantzule nagusiak.

% 96,3

Galdetegiari erantzun dioten % 96,3k uste dute Administrazio publikoen jardunbideak ez direla zuzenak.

Oro har, gizarteak baztertu egiten du administrazioek lan editorialak berrerabiltzea eskubideen titularrei ordaindu gabe: galdetegiari erantzun dioten % 73,7aren ustez, jardunbide desegokia da egile-eskubideak ez ordaintzeko legeak egitea, eta % 74,1ek ez du onartzen konpentsaziorik gabeko edukiak banatzea. Datu horiek erakusten dute herritarrek erabat arbuiatzen dituztela egile-eskubideen urraketak, baita berriki sortutako testuinguru teknologikoetan ere, hala nola adimen artifizialaren (AA) alorrean.

Egindako azterketatik ondorioztatzen denez, inkestaren % 95,8k uste du administrazio publikoek eduki editorialen erabileran jardunbide desegokiak izatea enpresa teknologiko batek izatea bezain larria edo are larriagoa dela. Pertzepzio horrek erakusten du gizarteak eredugarritasun instituzionala eskatzen duela egileen eta editoreen eskubideen defentsan.

Jokaera instituzional horrek eragin zuzena du herritarrengan. Administrazioek eta ikastetxeek eduki editorialak egile-eskubideak errespetatu gabe berrerabiltzen dituztelako pertzepzioak aurreko blokean aztertutako alborapen kognitiboak aktibatzen ditu, eduki editorialen legez kontrako erabilera normalizatzen dute, erruduntasun-pertzepzioa murrizten dute eta instituzioen autoritatea eta kultura-edukiengatik ordaintzeko borondatea higitzen dute. Eredugarritasun instituzionala, desiragarria izateaz gain, ezinbestekoa da dinamika horiek geldiarazteko.

Egile-eskubideekin gardentasunez jokatzeko duen administrazio publiko bat

Egile-eskubideen zaintzak eragin guztiz positiboa du Administrazioen irudian. Herritarren arrazobidean kontrako arazo harreman argigarri bat sortzen da, azpian, oso kontuan hartu beharrekoa.



Egile-eskubideak babesten dituen Administrazioa

- Serioa eta eragingorra
- Arduratsua, gardena eta bidezkoa
- Zaintzen du bere ondarea eta aktibo kulturala
- Arduratzen da gizarteagatik eta herrialdeagatik
- Aktiboa eta borrokalaria da
- Demokrazia heldua
- Epe luzera begiratzen du



Egile-eskubideak zaintzen ez dituen Administrazioa


- Lasaita eta eragingabea
- Arduragabea, iluna eta bidegabea
- Ez du bere ondare kulturala zaintzen
- Axolagabea eta gizartearekiko interesik gabea
- Paso egiten du eta ez da aktiboa
- Demokrazia ahula eta zaugarria
- Epe laburrera begira

Ildo horretan, herritarrek lau neurri mota eskatzen dituzte, zehatzak eta elkarren osagarriak:

- Kontzientziazio-kanpaina orokorrak eta mezu argiak erosketa digitaleko kanaletan.
- Hezkuntza- eta prestakuntza-ekintzak ikastetxeetan, unibertsitateetan eta kultura-guneetan.
- Ikuskapen errealak eta zehapen eraginkorrak, bai partikularrentzat, bai erakundeentzat.
- Egile-eskubideak ordaintzea eduki editorialak berrerabiltzeagatik.

Kulturaren iraunkortasunerako zutabeak

Herritarrek legeak gardentasunez egitearen, kultura Estatuaren ardatz estrategiko gisa aitortzearen eta sortzaileentzako baliabide egonkorrek bermatzearen aldeko apustua egiten dute: **gai horiek berez definitzen dute zer tratamendu eman behar zaion merezimenduzko ondasun bati teoria ekonomikoaren arabera**. Eskaera horiek ez dira unean uneko larrialdi gisa adierazten, **sektore editorialean eta kultura idatziaren iraunkortasuna bermatzeko beharrezko zutabe** gisa baizik.



Ondorioa. Gizarteak argi eta garbi ezagutzen ditu eduki editorialetan gertatzen diren erabilera okerrak, eredugarritasunik eza leporatzen die erakunde publikoei eta hezkuntza-erakundeei, eta informazio, hezkuntza eta politika iraunkorrak eskatzen ditu egile-eskubideak babesteko eta egileen eta editoreen lanarekiko errespetua sustatzeko.

Kultura idatzia arriskuan AAren ondorioz



AA vs sormena: ba al du etorkizunik kultura idatziak?

Kultura idatzia aintzat ez hartzearekin batera, gero eta handiagoa da arriskuan dagoelako sentsazioa, hiru arrazoi hauengatik: digitalizazioa, edukiak berehala eskuratzeko aukera eta mundu digitaleko eduki horien itxurazko doakotasuna. Behatokiaren arabera, kultura idatziak gizartean duen leku sinbolikoa –eta baita intrintsekoa ere– ahultzen ari da AA.

Herritarrek antzeman dute balioa desplazatu egin dela: edukietatik kanalera, argitalpenetatik algoritmora. Hauskortasun-pertzepzio hori areagotu egin da Adimen Artifizial Sortzailea agertzearekin batera.

Digitalizazioari lotutako jarrerrei dagokienez, AAK duen inpaktuan oinarritu da azterketa, eta emaitzak anibalenteak dira. Alde batetik, AAK lilura sortzen du, potentzial handia duela-eta, baina baita beldurra ere, ekosistema kulturalan izan ditzakeen ondorioak direla-eta: deshumanizazioa, talentua galtzea eta uniformetasuna.

Herritarrek AAren aurrean dituzten JARRERAK ANBIBALENTEAK dira. Beste edozein aurrerakuntza disruptiborekin gertatzen den bezala, garrantzizko gatazka gertatzen da.


Herritarren JARRERAK ANBIBALENTEAK dira AAren aurrean.

 Berrikuntzaren erakarpena	 Zuzenean gizakiari eragiten dion mehatxua
AAREkin egin ahalko denarekiko espektatibak eta jakin-mina sortzen dira. Harriduran eta aurrerakuntza mugatuan oinarritutako diskurtsoa sortzen da gizartean.	Status quo-a suntsitzeko arriskua, giza balioa galtzeko arriskua, lanen galera, gizakia «makina» ordeztea.
«Sekulakoa da, AA aurrerakuntza da, segundo gutxi batzuetan egiten du lan bat»	«Beldurgarria da, lehen egiten genituen lan asko desagertu egingo dira»


Beldur hori gorabehera, azterlanak egiaztatu du AA Sortzailea asko erabiltzen dela, batez ere lehendik dauden edukiekin:

- Herritarren % 59,3k erabili dituzte noizbait AA Sortzailearen aplikazioak (ChatGPT, Gemini...).
- Herritarren % 55ek azken hilabeteetan erabili dituzte; horrek esan nahi du erabilera-maiztasuna oso berria eta orokorra dela.
- Herritarren % 72,3k lehendik dauden edukiekin erabiltzen dituzte berariaz –batez ere webguneetako testuekin eta hezkuntza-liburuekin–, eta horrek zuzenean eragiten dio argitalpen-ekosistemari.


AA Sortzailea: erabilera eta jarrerak



Noiz edo noiz
erabili du



Erabili du azken
hilabetea



Aurretik dauden
edukien gainean
erabiltzen du

Oro har, gizarteak uste du AAk eta kultura idatziak aurkako unibertsoak ordezkatzeko dituztela: lehena automatikoa, masiboa eta desegituratua denarekin lotzen da; bigarrena, berriz, giza ahaleginarekin, identitatearekin eta kultura-ondarearekin.


Aspektua	Kultura	Adimen artifiziala
Jatorria	Gizatiarra, bizipenezkoa, emozionala	Artifiziala, teknologikoa, giza esperientziarik gabea
Identitate kulturala	Identifikazio altua: balioak, sinesmenak eta ondare kolektiboa adierazten ditu	Identifikazio baxua: uniformetasun- eta anonimotasun-pertzepzioa
Ekoizpena	Ahaleginean, merezimenduan, talentuan eta sormenean oinarritua	Automatismoari, erraztasunari eta giza ahalegin minimoari lotua
Eragina pentsamenduan	Pentsamendu kritikoa eta adimen kolektiboa indartzen ditu	Pentsamendu bakarraren, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskua
Araudia	Eduki egituratua, arautua, kalitate-bermearekin	Kaotikoa, erregulazio argirik gabea, haren sinesgarritasunak zalantzak sortzen ditu
Balio sinbolikoa	Jakintza, ezagutza, kultura-adierazpena	Lilura teknologikoa, baina gizatasuna galtzeko arriskuarekin
Pertzepzio soziala	Gizarte aurreratu, hezibide oneko eta plural baten zutabea	Arriskuan jar ditzake kultur aniztasuna eta ondare intelektuala

AAren arriskuen aurrean, erregulazioa eta sortzaileen babesa

Herritarren ustez, erregulazio egokirik gabe, AA mehatxu zuzena da kultura idatziarentzat.

Galdetegia erantzun dutenen % 51,4k uste du AA arrisku handia dela gizartearentzat, eta % 18,2k soilik uste du arriskua txikia dela.

AAren arriskua, oro har




Kezka horren ondorioz, babesa eskatzen zaie erakundeei, ekosistema editorialaren iraunkortasuna bermatzeko eta egile-edukien balio sinbolikoa babesteko, automatizazio-arriskuen eta identitate kolektiboaren galeraren aurrean.


Ondoeza ez da soilik lege-kontuengatik sortzen; izan ere, inkestatuek uste dute fenomeno horrek edukien kalitateari eta eraikitzen ari den kultur ereduari ere eragiten diela. Beldur dira kultura inpersonala, uniformea eta gizatasunik gabea sortuko ote den, non norbanakoaren talentuak balioa galduko duen eta kultur ondarea degradatu egingo den.

Gizartearen ikuspegitik, adimen artifizialak kulturaren eremuan duen eragina arautzeko erantzukizun nagusia herri-administrazioena da, batez ere administrazio zentralarena. Lege argiak eta eguneratuak egitea espero da, babestutako obrak bereizketarik gabe eta baimenik gabe erabiltzea galarazteko, egile-eskubideen babes eraginkorra bermatuz eta sorkuntzaren balioa eta kultura-ekosistema zainduz.

Galdetegia erantzun dutenen % 89,7k uste du Estatuak bere gain hartu behar duela AAren erregulazioa kulturaren arloan, enpresa teknologikoek sustatzen duten desinformazioa, manipulazioa eta gizarte-kontrola saihesteko (% 63,8), pentsamendu kritikoa eta giza garapena babesteko (% 53,7), inpaktu emozionala, psikologikoa eta kulturala babesteko (% 44,1), eta gobernuen eta enpresa teknologiko handien arteko boterea orekatzeko (% 38,7). Eta horretaz gain, desberdintasun ekonomikoak prebenitzeko eta kontrol politikoa eta demokratikoa berreskuratzeko.




Hala ere, inkestatuak oso kritikoak dira Administrazioak orain arte aurrera eramán duen jarduerarekin: % 72,4k uste du irizpiderik eta epe luzerako proiektiorik gabe egiten dituela legeak; % 74,1ek uste du kontrolik eza orokorra dela; eta % 80k uste du Estatuak amore eman duela enpresa teknologiko handien interesen aurrean, eta, ondorioz, ahuldu egin duela eskubideen bermatzaile gisa izan behar lukeen zeregina.




Egindako inkestatik ondorioztatzen da kultura eta hezkuntza funtsezko zutabeak direla gizartea indartzeko, adimen artifizialak planteatzen dituen erronken aurrean. Ildo horretan, inkestatuen % 89k egile eta editoreen babes egoki batekin lotzen du aurrerapen iraunkorra. Irakurketa, pentsamendu kritikoa eta sortzaileei laguntzea funtsezko tresnatzat hartzen dira, teknologiak gero eta garrantzi handiagoa duen ingurunean giza eta kultur garapena babesteko.

Testuinguru horretan, **egile eta editoreentzako babes aktiboa** eskatzen dute herritarrek. Inkestatuen % 88,3ren iritziz, kultura idatzia indartzea da gehiegizko teknologiaren eta AAre arriskuei aurre egiteko modurik onena, babes hori etorkizuneko estrategia gisa, talentuaren defentsa gisa eta homogeneousazio kulturalaren galga gisa interpretatuta. Hala ere, % 72,7ren iritziz, administrazio publikoek ez dute behar bezala betetzen erantzukizun hori, eta lehentasuna ematen diete enpresa teknologiko handiei, sortzaileen eskubideen gainetik. Gainera, % 62,5ek uste du administrazioak ez dituela behar beste babesten egileak eta editoreak, edo ez dituela batere babesten; % 37,5ek, berriz, «asko edo nahikoa» egiten dela; azken horien artean, % 86k adierazi du ez dakiela nola gauzatzen den babes hori, gardentasun eskasa eta komunikazio instituzionalaren falta agerian utzita.


Administrazio publikoek egile eta argitaratzaileei ematen dieten babesaren pertzepzioa



Administrazio publikoek ez dutela erantzukizun hori betetzen uste dute, sortzaileen eskubideen aurretik teknologia-enpresa handiei lehentasuna emanez.



Uste du agintariek gutxi babesten dutela edo ezer ez idazleei eta editoreei.



Eta asko edo dezente babesten dutela uste dutenen artean, % 84,8k ez daki nola egiten duten.

Ondorioa. Adimen artifizialak lilura zein beldurra eragiten ditu. Haren hedadurak algorithma eramaten du edukiaren balioa eta mehatxatu egiten ditu gizakiaren talentua, aniztasuna eta ondare kulturala. Herritarrek araudi argia eskatzen dute, eta egileak eta editoreak babestea, jakitun izanik kultura idatzia dela babesik onena gehiegikeria teknologikoaren aurrean.

ZOOM. Adimen artifizial sortzailea: haren ezarpenari eta haren gaineko pertzepzioari buruzko azterketa eguneratuagoa eta orekatuagoa



Ipsosen azterlanean ez bezala —Googlek agindua eta Adimen Artifizial Sortzailearen berehalako onuretan soilik zentratuta: informaziorako sarbidea, hezkuntza, lana...—, Qbok CEDROrentzat egindako txostenak ikuspegi osoagoa eta orekatuagoa eskaintzen du. Ekarpen positiboekin batera, txostenak Ipsosek aztertu gabeko arriskuak eta kanpo-eraginak aipatzen ditu, hala nola, desinformazioa, mendekotasun teknologikoa, langabezia edo AA arriskutsua delako pertzepzioa.

Begirada zabal hori funtsezkoa da, aukera ematen baitu hobeto ulertzeko adimen artifizialaren inpaktu kultural, sozial eta ekonomikoak, ikuspegi baikorregiak saihestuz. Hala, Qboren azterketak oinarri sendoagoa ematen du politika errealistak diseinatzeko, guztien ongia bilatzeko eta kultura idatziaren iraunkortasunerako bideratuak.

Aztertutako alderdia	Ipsos	Qbo
Informaziorako sarbidea	Positiboa	Positiboa(% 63,9) + negatiboa(% 8,4)
Hezkuntza	Positiboa	Positiboa+ negatiboa(% 12,7)
Lana	Positiboa	Positivo + negatiboa
Langabezia	Ez da neurtu	% 37 negatiboa
Desinformazioa	Ez da neurtu	% 50,5 negatiboa
Mendekotasun teknologikoa	Ez da neurtu	% 48,4 negatiboa
Gizartearen pertzepzioa («arriskutsua»)	Ez da neurtu	% 46,6 arriskutsutzat jotzen du

Neurtu gabe utzitako alderdiak oso garrantzitsuak dira, AA ulertzeko modua aldatzen baitute:

- **Desinformazioa:** Qbok agerian uzten du biztanleriaren alderdi handi batek informazioa manipula dezakeen tresnatzat hartzen duela AA. Horrek erakusten du AA ez dela soilik ezagutza eskuratzeko tresna bat, eta kalitate demokratikoa eta pentsamendu kritikoa arriskuan jar dezakeen mehatxu bat ere badela.
- **Mendekotasun teknologikoa:** oro har, ustea da AAk areagotu egiten duela pertsonen eta gizarteek teknologiaren aurrean duten ahultasuna. Horrek autonomia-galeraren eta kontrol sozialaren arriskuak dakartza, Ipsosek aztertu ez zituenak.
- **Langabezia:** Qbok adierazten du biztanleriaren sektore adierazgarri batek enplegurako faktore negatibo bat bezala ikusten duela AA, langileen ordezkapenaren eta lan-prekarizazioaren beldurrari zuzenean lotuta. Ipsosek ez zuen baloratu hori, eta, hala, inpaktu ekonomikoaren ikuspegi osatugabea aurkeztu zuen.
- **«Arriskugarritasun» pertzepzioa:** biztanleriaren zati handi batek uste du AA arriskutsuagoa dela berritzaile baino, agerian utziz gizartean kezka handia dagoela tresna horrek izan ditzakeen ondorio kultural, gizatiar eta etikoei dagokienez. Ñabardura kritiko hori ez zen ageri Ipsosen txostenean.

Irtenbideak



Konponbideen proposamena

Kultura Idatziaren Iraunkortasunaren Behatokiak egiturazko neurriak hartuko dituen premiazko ekintza bat eskatzen du. Ekintza horretan elkartu behar dira legedi argi bat, Administrazioak eskubideen kudeaketa aktiboa egitea, gardentasuna, hezkuntza, kontzientziazio-kanpainak, lankidetzak publiko-pribatua eta sektore publikoaren ereduzko rola. Egiturazko neurri horien artean daude, besteak beste:

- Eduki editorialen erabileran anbiguitasunak eta salbuespenak ezabatuko dituen **legedi argia**.
- **Gardentasun instituzionala** eduki babestuen erabileran eta banaketan, berrerabilera horretarako egile-eskubideen lizentziaren bidez.
- **Egile-eskubideei buruzko prestakuntza**, hezkuntza-maila eta herri-administrazio guztietan.
- **Sentsibilizazio-kanpaina** iraunkorrak, honako gai hauek ardatz hartuta: edukiaren balioa, egilearekiko errespetua eta pirateriaren ondorioak.



www.cedro.org

2025 © CENTRO ESPAÑOL DE DERECHOS REPROGRÁFICOS